

ikaskaria

Ilea

Miren Zabaleta



Ileak eguzki-izpietatik babesten gintuela uste nuen, horixe zela bere eginbeharra. Ez nuen uste beste zereginik zuenik. Burua estaltzeko soilik balio zuela pentsatzen nuen, apaingarri moduan, eta kito.

Baina ez, nire ikuspegia aldatu egin da. Orain gutxi argitaratu duten ikerketa baten arabera, ileak esanahi ugari ezkutatzen du. Ile-koloreak, orrazkerak eta ilea ukitzeko dugun moduak uste duguna baino informazio gehiago bidaltzen dute. Dirudenez, norbanakoaren bizitza sexual nahiz sozialari buruzko ondorio ugari atera daiteke ileari erreparatuz gero. Ileak definitu egiten omen gaitu!

Esaterako, ile beltza indarraren, pasioaren eta jenio-biziaren adierazle omen da. Ile gorria, berriz, sexualitatearekin lotuta ei dago, garrarekin. Bestetik, ile horia garbitasunaren, emetasunaren eta gaztetasunaren seinale da, baina baita hauskortasun edota harrokeriarena ere.

Gaztaina-koloreko ilea, berriz, orekaren isla da.

Ilearen luzeraren inguruan ere bada makina bat estereotipo. Ile motza duten emakumeak iraultzaile moduan ikusten ditugu. Gizon iraultzaileak, berriz, ile luzea dutenak dira, adats luze korapilatsua dutenak. Ile luzea daukaten emakumeek euren emetasuna azpimarratu nahi dutela pentsatu ohi da. Fraide eta soldaduek, berriz, ilea motz-motza izaten dute, diziplina gogorraren erakusgarri.

A! Kontuz ibili ilea ukitzeko duzun moduarekin! Izan ere, ilea ukitzeko moduak informazio ugari gordetzen omen du. Gizona zarela irudika ezazu. Taberna batean zaude, eta han, urrutian, emakume bat dago, zuri so. Begira duzula ilea ukitzen badu, ongi, zure atentzioa bereganatu nahian dabil. Ondoren, ilea eskuekin jaso eta lepoa agerian uzten badu, gustuko zaituela esan nahi dizu. Zerbait hartzera gonbidatzen baduzu eta bere ilea ukitzen lagatzen badizu, hurrengo pausoa emateko garaia da...

Ile-gogortzailea darabilen bat eskuindarra izango da, eta "gorri" batek ile kizkur luzea izango du, ziur! Egongo al da hippy kaskamotzik? Eta "ultra" adats-luzerik? Zer esango ote dute burusoilek guzti honetaz!